

Laudio, 2026ko uztailaren 29an

Altzarrateko futbol zelaia hobetzeko konpromisoa berretsi du Udalak

Laudioko Udalak aurrera egiten jarraitzen du Altzarrateko futbol zelaia hobetzen, erabiltzaile guztientzako instalazio seguruak eta kalitatezkoak bermatzeko helburuarekin.

2025ean hainbat jarduera egin dira futbol zelaietan, besteak beste, sareak berritzea, porteriak ordezteak, markagailuak eguneratzea eta soropilean hainbat hobekuntza egitea. Lan horien emaitzak ikusgai daude dagoeneko.

Egiteke dagoen jardueretako bat ureztatze-ponpa instalatzea da, ezinbestekoa baita eremua hobetzeko. Beharrezko inbertsioa 2026ko otsailetik dago aurrekontuan, baina gauzatzeko oposizioaren babesak behar zen, eta astelehenean osoko bilkuran egindako bozketan bere gaitzespena adierazi zuen.

Hala ere, Udalak lasaitasun eta konpromiso mezua helarazi nahi du. Lanean jarraituko dugu jarduera hau gauzatzeko beharrezkoak diren bideak aurkitzeko eta Altzarrateko jokalariek zelai segurua, zaindua eta Laudiok merezi duen mailan gozatu ahal izatea bermatzeko.